

**Bilboko turismo-sektorean COVID-19ak eragindako krisiaren kalte ekonomikoa arintzeko 2021. urterako aparteko laguntzen deialdia**

## 1. ZIOEN AZALPENA

Bilbao Ekintza EPEL Bilborako ekonomia- eta gizarte-aberastasunaren sorrera sustatzen duen udal-erakunde bat da, Bilboko Udaleko Garapen Ekonomiko, Merkataritza eta Enplegu Sailera atxikita dagoena; horretarako, hiria inbertitzeko leku erakargarri gisa bultzatzen du eta enpresak sortzen eta hazten laguntzen du, laneratzeko aukerak hobetuz.

36/2020 Dekretuaren —2020ko urriaren 26koa, lehendakariarena, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira Alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko— bitartez hasiera batean onetsitakoetatik abiatuta hartzen joan diren berariazko prebentzio-neurriak berriz ere ebaluatu dira ondorengo beste dekretu batzuekin, 7/2021 Dekretura iritsi arte, otsailaren 12koa, lehendakariarena, zeinaren bidez laugarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: abenduaren 10eko 44/2020 Dekretua. Bada, horrez gain, beste dekretu batekin ordezkatu dira geroago: 13/2021 Dekretua, martxoaren 6koa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak 2021ean testu bakar batean lehen aldiz bateratu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren deklarazioaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko. Neurri horiek ekarritako eragin ekonomiko eta soziala ikusita, Bilboko Udalak beharrezkotzat jo du hiriko turismoaren sektoreari zuzendutako laguntza zuzenen beste deialdi bat abian jartzea. Izan ere, Covid-19aren osasun-krisiak gehien kaltetu duen sektoreetako bat da. Bilbao Aurrera 2021 Planaren Jarraipen Batzordea osatzen duten talde politiko guztiak bat datoz proposamenarekin. Aparteko neurri berri bat da, eta COVID-19aren aurkako planean jasotako ekintzekin eta aurrekontuarekin egin du bat. Guztira, 15 milioi euro baino zertxobait gehiagoko aurrekontua du.

Azaldutakoa kontuan hartuta eta aintzat hartuta salbuespenezko deialdi honen ezinbesteko premiazkotasunaren ondorioz ezin direla Administrazio Kontseiluaren alde aitortutako eskumenak erraztasunez gauzatu eta Bilbao Ekintza EPELko Estatutuen 10.3. artikuluari jarraikiz, Bilbao Ekintza EPELren Presidentetzak, Administrazio Kontseiluari egun horretan egindako bileran deialdiaren edukiaren berri eman ondoren, Bilboko turismo-establezimenduetan COVID-19ak eragindako krisiaren kalte

ekonomikoa arintzeko 2021. urteko aparteko laguntzen deialdia onetsi du 2021eko apirilaren 23an.

## **2.- DEIALDIAREN XEDEA**

Bilboko udalerriko turismo-sektoreko pertsona fisikoei (autonomoak edo profesionalak, ondasun-erkidegoen bazkideak eta nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilak) edo juridikoei, mikroenpresei edo ETE-ei emateko laguntzak arautzea da deialdi honen xedea, lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretua argitaratu zenetik hartu diren neurrien ondorioz izan duten galera ekonomiko zuzena arintzeko eta sektorea babesteko. Decreto 36/2020, de 26 de octubre, del Lehendakari.

## **3. AURREKONTU-KREDITUA**

Deialdi honetarako BERREHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI MILA EURO (268.000,00 €) bideratuko dira.

Bilbao Ekintza EPELko presidentek zenbateko hori handitu ahal izango du, gehienez ere, HIRUROGEITA HEMEZORTZI EUROKO zenbatekoan (78.000,00 €), baldin eta hasiera batean adierazitako zenbatekoa nahikoa ez bada ezarritako betekizunak betetzen dituzten aurkeztutako eskaera guztiei aurre egiteko.

## **4.- ENTITATE ONURADUNAK**

Deialdi honetan xedatutako laguntzen onuradunak izan ahal dira deialdi honetako betekizunen arabera helbide fiskala edo lantokia Bilbon duten eta turismo-sektorean legez eraturako mikroenpresak, enpresa txikiak edo enpresa ertainak diren pertsona fisikoak (autonomo edo profesionalak, eta ondasun-erkidegoen bazkideak eta nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilak) edo juridikoak, baldin eta jardueran kalteak pairatu badituzte COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko hartutako neurrien ondorioz.

Hain zuzen ere, dokumentu honetan I. eranskinean zerrendatutako Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalen edo jardueren barruan jasotako establezimenduek eskuratu ahal izango dituzte laguntzak.

Ondasun-erkidegoen edo sozietate zibilen kasuan, bertan parte hartzen duten pertsona fisiko eta juridiko guztiak izango dira onuradunak, baina guzti-guztiek bete beharko dituzte deialdi honetan ezarritako betekizunak eta baldintzak. Edonola ere, elkarteko ordezkari bat izendatu beharko da, onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko adina eskumen izango dituena. Elkartea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 39. eta 65. artikuluetan xedatutako preskripzio-epea igaro baino lehen desegiten bada, emandako dirulaguntza itzuli beharko da.

Era berean, pertsona onuradunak izatetik baztertuko dira kapital publikoko entitateak, zuzenbide publikoko entitateak eta sozietate publikoak edo batik bat administrazio publikoek edo horien mendeko entitateek gobernu-organoetan edo kapitalean partaidetza duten beste batzuk.

## **5.- BETEKIZUNAK**

Pertsona eta entitate onuradunek honako betekizun hauek bete beharko dituzte 2021eko urtarrilaren 15ean:

- a) Enpresa-jarduera Bilboko udal-mugarrean gauzatzea.
- b) Ekonomia-jardueren gaineko zergan benetan alta emanda egotea deialdi honetatik kanpo ez dagoen enpresa-jarduera edo jarduera profesional batean.
- c) Norberaren konturako langileen edo autonomoen kasuan, Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda egotea.
- d) Pertsona juridikoen kasuan, mikroenpresa, enpresa txiki edo enpresa ertain gisa sailkatuta egoteko beharrezkoak diren baldintzak betetzea:
  - 1) Berrehun eta berrogeita hamar langile baino gutxiago izatea eta deialdiaren aurreko ekitaldiko abenduaren 31n negozio-bolumenak 50 milioi euroko zenbatekoa ez gainditzea edo urteko balantzeak 43 milioi euroko zenbatekoa ez gainditzea.
  - 2) Berrehun eta berrogeita hamar langile edo gehiagoko enpresa batek kapitalaren % 25 edo gehiagoko partaidetza ez izatea, 50 milioi euro baino gehiagoko negozio-bolumenarekin.

d) Egunean egotea, bai administrazio publikoekiko dagozkion zerga-betekizunetan, bai Gizarte Segurantzarekiko bete beharrekoetan.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituzula egiaztatzeari dagokionez, organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du ordainketa egin aurretik. Dena den, eskatzailea beren-beregi agertu ahal izango da egiaztapen hori egitearen aurka, eta, horretarako, bere kabuz aurkeztu beharko ditu baldintza hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak.

e) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa egunean izatea.

f) Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galdua zigor edo administrazio arloko zehapenik ez izatea eta horretarako ezgaitzen duten lege debekuetan sartuta ez egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera edo Emakume eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuagatiko bereizkeria gauzatzeagatik gertatu direnak barne.

g) Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan ezarritako gainerako egoeraren batean sartuta ez egotea, haien onuradun izaera lortze aldera.

## **6.- LAGUNTZAREN ZENBATEKOA**

Deialdi honetan jasotako laguntzak funts galduko dirulaguntzen bitartez gauzatuko dira.

Pertsona edo entitate onuradunari emango zaion laguntzaren zenbatekoa ezartzeko orduan, 2021eko urtarrilaren 15ean alta-egoeran zeuden eta eskabidean aipatu diren establezimenduko edo lantokiko langileen kopurua hartuko da aintzat, honako taula honen arabera:

Deialdiaren I. eranskineko b) c) d) eta e) epigrafeetan agertzen diren entitateetarako, hau da, turismo-garraioko enpresak, turismo aktiboko enpresak, kongresuak antolatzen dituzten enpresa profesionalak eta turismo-gidariak, pertsona edo entitate onuradunari emango zaion laguntzaren zenbatekoa eskaera aipatu den establezimenduan edo lantokian lan egiten duten pertsonen kopuruaren arabera ezarriko da, 2021eko urtarrilaren 15ean alta emanda zeudenak kontuan hartuta, turismo

aktiboko enpresen kasuetan izan ezik, zeinetan 2019. urteko batez besteko plantilla hartuko den aintzat. Hori guztia jarraian adierazi dena kontuan hartuta:

- 1-9 langile dituzten establezimenduak: MILA EURO (1.000,00 €).
- 9 langile baino gehiago dituzten establezimenduak: MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO (1.250,00 €).

Kasu guztietan, langileen kopuru osoan barne hartuko dira, bai autonomoak, bai soldatako langileak, nahiz eta denbora osoko zein denbora partzialeko lanaldia izan, aktibo egon zein ABEEE egoeran egon, lan-harremana etenda egon edo jarduera etenda egon. Langile bera lantoki bakarrari esleitzea baino ez da onartuko.

Deialdi honen I. eranskineko a) apartatuaren barruan dauden entitateen kasuan, hau da, bitartekaritzako turismo-enpresak, dirulaguntzaren zenbatekoa MILA ETA BOSTEHUN EURO (1.500,00 €) izango da kasu guztietan.

## **7. BATERAGARRITASUNA**

Oinarri hauetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administrazio publikotatik edo entitate pribatutatik jasotzen diren dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekina.

## **8. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA**

Laguntzen eskabideak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo eguneko 10:00etatik aurrera abiaraziko da, eta egutegiko hamabost egunetan egongo da irekita.

Bat egiteko eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira esteka honen bitartez: <http://www.bilbaoaurrera.eus/>.

Eskabide bat aurkeztu behar da lantoki edo establezimendu bakoitzeko, enpresa bakarrak bat baino gehiago izan arren. Enpresek establezimendu edo lantoki bakoitzerako eskatu ahal izango dituzte laguntzak, bakoitzari dagokion eskabidea aurkeztuta.

Bitartekaritzako turismo-enpresek eskaera bakarra egingo dute enpresa osatzen duten lantoki, sukurtsal eta salmenta-toki guztietarako.

Ondasun-erkidegoen eta sozietate zibilen kasuan, laguntzari lotutako eskabide bakarra aurkeztu beharko da, eta bazkideek ezin izango dute laguntza banan-banan eskatu.

Eskabidean beren-beregi adieraziko da jakinarazpenetarako helbidea. Eskatzaileak beren-beregi jakinarazi beharko du datuetan gerta daitekeen edozein aldaketa, bereziki, eskatzailearen helbideari eta bankuko datuei dagokienez.

Eskabidearen inprimaki normalizatuekin batera, pertsona edo entitate eskatzaileek deialdi honetan zehaztu diren dokumentu guztiak aurkeztu beharko dituzte.

Eskabideak aurkezten diren unetik aurrera, beren-beregi eta modu formalean onartzen dira deialdi honetako oinarrietan definitu diren baldintzak.

## **9. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

Honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek:

- a) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdiaren II. eranskinarekin bat etorriz.
  - b) Enpresa-jardueren gaineko zergaren alden eta baje ziurtagiria, deialdiaren laburpena BAO n argitaratu ondorengo datarekin.
  - c) Kotizazio-kontuaren kode baten lan-bizitzaren txostena, non egiaztatu egingo den 2021eko urtarrilaren 15ean zein zen laguntza eskatzeko aintzat hartu den establezimenduan edo lantokian dagoen plantilla osoa. Turismo aktiboko enpresen kasuan, 2019. urtean alta emanda dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak igorria.
- Norberaren konturako langileen edo autonomoen kasuan, 2021eko urtarrilaren 15ean Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda egotea egiaztatzen duten dokumentuak.
- d) Kontu korrontea bere izenean duela egiaztatzen duen agiria.
  - e) Turismo garraio enpresen eta turismo ekimenen kasuan, turismo sektoreko kide direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

EAEko turismo-sektoreari sostengua emateko 2021eko laguntza-programa arautzen eta haren deialdia egiten duen Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 26ko Aginduaren bitartez deitutako laguntzak onesteko ebazpena aurkezteak dokumentu honetako c) eta e) apartatuan jasotako dokumentuak aurkezteaz salbuetsiko zaitu. Kasu horretan, pertsona edo entitate onuradunari emango zaion laguntzaren zenbatekoa establezimenduan edo lantokian lan egiten duten eta bertan jaso diren pertsonen kopuruaren arabera izango da.

Era berean, eskatzaileek edozein unetan aurkeztu ahal izango dute, betiere, Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritza Nagusiak deialdi honen inguruko ebazpena eman aurretik.

## **10. ESKABIDEA ZUZENTZEA**

Eskabide-orriak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat badu edo osagabeak badira, entitate interesdunei hamar (10) egun baliouduneko epea emango zaie antzemandako akatsak zuzentzeko. Epe hori igarotakoan akatsik egin ez badute, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako terminoen arabera emango den ebazpenaren ondoren.

## **11. DEIALDIA BIDERATZEKO ETA EBAZTEKO ESKUMENA DUEN ORGANOA. PROZEDURA**

Deialdi honetan instrukzio-organo bat dago, eta Bilbao Ekintza EPELren Merkataritza Arloari atxikitako teknikariek osatzen dute. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, ofizioz egingo dituzte datuak zehaztu, jakin eta egiaztatzeko egokitzat jotzen dituzten jarduketak guztiak, eta horiek oinarri hartuta egin beharko da ebazpen-proposamena.

Era berean, organo horrek eskumena izango du, egoki jotzen duenean, eskabideak ondo ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat hartzen duen dokumentazio edo informazio osagarri guztia eskatzeko.

Dirulaguntzen eskabideei dagokienez, aurkezpen-egunaren eta -orduaren arabera izapidetuko dira, betiere, zuzentzeko eskatu behar ez den kasuetan. Zuzenketaren bat



egin behar bada, eskabidea modu egokian osatzeko dokumentazioa aurkeztu den eguna eta ordua hartuko dira kontuan eta, edonola ere, deialdirako eskuragarri dagoen kreditu-muga aintzat hartuta, eta ezarritako kredituaren arabera.

Onuradun izateko eskatzen diren baldintzen arabera emango dira, besterik ez, eta ez da beharrezkoa izango eskabideak bata bestearekin alderatzea edo lehentasunak ezartzea.

2. artikuluan ezarritako aurrekontu-zuzkidura agortzen bada, ez dira laguntza gehiago emango eta ez dira ebazteke dauden eskabideak onartuko.

Eskabideak ebaluatu ondoren, txosten bat egingo da. Bertan, ebazteko eskumena duen organoaren emateko proposamena zehaztuko da, eta dirulaguntzen onuradunak eta proposatutako zenbatekoak jasoko dira, bai eta eskabideak ez onartzeko arrazoiak ere.

Bilbao Ekintza EPELko Zuzendaritza Nagusia da prozedura ebazteko eskumena duen organoa, eta, gehienez ere, hiru hilabeteko epea izango du ebazpen bat emateko, eskabideak aurkezteko epea guztiz amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Gainera, aurkeztutako dirulaguntzen eskabide guzti-guztien inguruko ebazpen arrazoitu egokia eman beharko du.

Prozeduraren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.1. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hori guztia Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean emandako dirulaguntzen argitalpena gorabehera.

Gehieneko epe hori amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, entitate interesdunek dirulaguntza emateko eskabidea administrazioaren isiltasunaren bitartez atzera bota dela ulertu behar izango dute.

Administrazio-bideari amaiera ematen dion ebazpen-erabakiaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu daiteke, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu daiteke dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, era berean zenbatuta.

## **12. ORDAINTZEKO MODUA**

Orokorrean, emateko ebazpenaren datatik aurrera ordainduko dira dirulaguntzak, emandako dirulaguntzaren ordainketa bakarrean, eta inolako bermerik eskatu gabe, dirulaguntzari atxikitako jarduerak aurrera eramateko beharrezko finantzaketa gisa.

Emandako dirulaguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, emandako banku-datuen informazioan agertzen den erakundearen kontu korrontean.

Dirulaguntza ez da ordainduko, baldin eta pertsona edo erakunde onuradunak beste dirulaguntzaren bat justifikatu gabe badu eta justifikatzeko epe hori amaituta badago. Halaber, dirulaguntza ez da ordainduko, pertsona edo erakunde batek aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean.

## **13. PERTSONA EDO ENPRESA ONURADUNEN BETEBEHARRAK**

- a) Bilboko Udalak egin beharreko egiaztatze- eta ikuskatze-jarduerak onartzea, eta horretarako eskatzen zaion informazio guztia ematea.
- b) Betekizunak eta baldintzak betetzen direla mantentzea, baita jarduera egiten dela eta dirulaguntza ematea edo izatea dakarren helburua betetzen dela ere.
- c) Diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten bestelako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide eskuratu izana jakinaraztea horren berri izan eta berehala.
- d) Oinarri hauetan jasotako betekizunak betetzen direla egiaztatzea.
- e) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretatik, onuradunari dirulaguntza eman zaiola jakinarazi eta bost (5) eguneko epean beren-beregi eta idatziz uko egiten ez badu, dirulaguntza onartu duela joko da.
- f) Jasotako funtsak itzultzea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako kasuetan, eta, bereziki, dirulaguntza lortzeko eskatutako baldintzak faltsutuz edo dirulaguntza jasotzea eragotziko luketen datuak ezkutatzuz lortzeagatik, edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan aurreikusitako finantza-egiaztapeneko eta -kontrolako jarduketei aurre egiteagatik, aitzakiak jartzeagatik, eragozpenak jartzeagatik edo uko egiteagatik.
- g) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikuluan xedatutako gainerako betebeharrak betetzea.

#### **14. ZEHAPENEN ERREGIMENA**

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko IV. tituluan ezarri da arau-hausteen eta zehapenen erregimena.

#### **15. DATU PERTSONALEN BABESA**

Datuak Babesteko Erregimen Orokorra (EB 2016/679) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Bilbao Ekintza EPELek jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak «Merkataritza Arloa» tratamenduaren jardueraren barruan sartuko direla, baita ere Bilbao Ekintza dela horren arduraduna eta entitatearen eskumeneko ekonomia sustatzeko politikekin zerikusia duten dirulaguntzak kudeatzeko eta kontrolatzeko helburua duela. Biltzen diren datuak beharrezkoak dira Bilbao Ekintza EPELri emandako ahalmen publikoak egikartzeko, eta gai horretan eskumena duten administrazio publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie lege-betebeharrak betetzen diren.

Datuen titularrek eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurkaratzeko edo tratamendua mugatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzte, aldez aurretik nortasuna egiaztatuta; horretarako, tratamenduaren arduradunari jakinarazpen bat bidali beharko diote idatziz honako helbide hauetakoren batera: Nafarroa kalea 5-2. solairua, 48001, Bilbo, edo [bilbaoaurrera@bilbaoekintza.bilbao.eus](mailto:bilbaoaurrera@bilbaoekintza.bilbao.eus) helbide elektronikoa.

#### **16.- INTERPRETAZIOA**

Bilbao Ekintzak eskubidea gordeta du egoera zalantzarrietan oinarri hauek interpretatzeko, eta bere erabakiak behin betikoak izango dira.

#### **17- APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA**

Eskaerak ebazteko prozedurak honako hauek beteko ditu:

- Bilboko Udalak eta bere organismo eta zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO).
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hori garatzen duen erregelamendu-araudia.

Halaber, dirulaguntzen arloan honako hauek ezartzen dutena aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako dirulaguntzei buruzkoa.
- Gardentasunari, informazioa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen I. titulua.
- Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.